

## **KONTROL MOZIOA**

### **HIRIKO ONDARE HISTORIKOA ETA ERABILERA OROKORRA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko irailaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da

## **JUSTIFIKAZIOA**

Azken urtebetean, behin baino gehiagotan, interes orokorrari begira, balio historikoa edo/eta artistikoa babesteko eta balioan jartzeko proposamenak egin ditugu; horien artean azpimarratu beharrekoa, Ondare Historiko eta Artistikoa Babesteko Kontseilua sortzeko proposizioa. Paraleloki proposamen zehatzak egin ditugu edo balio historikoa edo/eta artistikoa duten inguruneak eta espazioak babestu eta ezagutarazteko. Horiek guztiak onartu ez diren neurrian hiriko ondareak behar bezala balioan jarri gabe jarraitzen duela uste dugu.

Iraileko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean, erabilera orokorrari lehentasuna emateko, udal araudiak eta ordenantzak aplikatzen direla erantzun zitzaigun arren, Parte Zaharrean kokatua dagoen “Populazio Zibilari omenaldia egiten dion Emakumezkoaren Eskultura”ren inguruko espazioa ez da behar bezala errespetatzen ari. Hain zuzen ere espazio horrekiko interes falta dator lehenago ez delako ondarea balioan jartzea landu.

Finean auzia ez da mugatzen ea ordenantzak eta araudiak aplikatzen ari diren ala ez, baizik eta, aurrez hiriko ondarea balioan jartzeko lana egiten ari den ala ez. Hiriko ordenantzak eta araudiak aplikatzea nahikoa ez dela behin baino gehiagotan begi bistan geratzen ari denez, ondare historiko edo/eta artistikoa duten espazioekiko ezagutza eta aitortza sustatzeko neurriak, hala nola elkarbizitzarako neurriak hartzea ezinbestekoa da.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA:**

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko ondare historiko edo/eta kulturalaren ezagutza eta babesa baldintza duinetan gauza ditzala eta horretarako, besteak beste, udal ordenantzak eta araudiak modu egokian aplikatu ditzala.

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko ondare historiko edo/eta kulturalaren ezagutzan eta errespetuaren baloreetan oinarritutako sentsibilizazio kanpaina abian jar dezala,

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - -  
20003 Donostia

ostalaritza eta komertzio jardueri zuzendua, eta sektore hauek ordezkatzeko dituzten elkarteekin elkarlanean gauza dadila berau.

Donostian, 2016ko irailaren 23an

Naiara Sampedro Perez  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia